

**MARIJA LOUVRIC, KROAZIATIK ETORRIA**

# “Hau Euskal Herria da, jendeak euskaraz hitz egiten du eta ikasi egin behar nuen”

Marija Louvric Kroazian jaio zen 1988an, Kroazia iparraldeko Osijek hirian, baina Belisce herrian hazi zen, barnealdean. 2017an iritsi zen Zestoara, euskararik eta gaztelanirik ez zekiela. Iritsiaz bat eman zuen izena Zestoako AEK euskaltegian eta gaur egun euskara da herrian komunikatzeko erabiltzen duen hizkuntza. Artikulu honen jatorrizko bertsioa Zestoako *Danbolin* aldizkariaren azaroko zenbakian argitaratu da.

 NEREA ODRIUZOLA / DANBOLIN ALDIZKARIA  DANBOLIN

## **Nolatan etorri zinen Euskal Herrira? Eta nolatan Zestoara?**

Kroazian gogorra zen bizimodua. Lan asko egin behar izaten genuen, diru gutxi irabazteko. Bizitza ez zen ona; nire senarra eta biok egiten genuen lan han, baina ezin genituen gastu guztiak ordaindu; alokairua, etxeko gauzak, janaria... Ez ginen guztia ordaintzera iristen.

Nire senarra soldatzailea zen han, eta hemen ere soldatzen egiten du lan. Euskal Herrira etorri baino lehen Italian ere egin zuen lan nire senarrak; 2017an etorri nintzen Euskal Herrira, Zestoara, bi urte eta erdi daramatzat hemen. Lehendabizi nire senarra etorri zen, eta gero gure semea eta ni. Semea eta biok iritsi ginenean, Zestoara etorri ginen bizitzera, Azkoitian egiten baitu lan senarrak eta handik gertu baitago Zestoa.

Hasieran ez zitzaidan gustatzen Zestoa, baina orain asko gustatzen zait. Oso txikia da eta lagunak ere bai. Hasieran hizkuntzarekin izan nituen zailtasunak, baina poliki-poliki ari naiz euskara ikasten.

## **12 urteko semea daukazu, 10 urterekin Euskal Herrira eta Zestoara etorri zena.**

Hasieran galduta sentitu zen, baina oso

azkar ikasi du kaleko hizkuntza. Herriko ikastetxera joaten hasi zen eta tutoreak esaten dit ondo moldatzen dela, bai euskaraz eta bai gaztelaniaz. Gaztelaniaz gutxiago egiten du, lehen hizkuntza euskara delako, baina ondo moldatzen da. Erraz ohitu da hemengo bizitzara, azkar egin zituen lagunak.

## **Iritsi zinenean euskara ikastea erabaki zenuen, zergatik euskara aurrena?**

Nik pentsatu nuen lehendabizi hizkuntza konplikatuen ikastea (euskara) eta gero errazagoa (gaztelania). Pentsatu nuen: “Hau Euskal Herria da, euskaraz hitz egiten dute eta euskara jakin behar dut”. Euskara izan zen nire lehen aukera. Iritsi eta berehala joan nintzen AEK-n izena ematera. Iritsi nintzenean *Kaixo* eta *Agur* esan nitzakeen soilik. Erosketak egitera joaten nintzenean ez nuen hitz egiten, kaxako pantailatxoan ikusten nuen zenbat ordaindu behar nuen eta ordaindu egiten nuen; nik ingelesez badakit, baina hemen gazteez aparte jende gutxi daki ingelesez.

Badauzkat lagun kroaziar batzuk Irunen. Ez dakite euskaraz, ezer ere ez. Hona iritsi zirenean gaztelania ikasi zu-

ten eta ez dute euskara ikasi nahi. Esaten dute gaztelania Espainia osoan hitz egin dezaketela eta euskara soilik Euskal Herrian.

## **Nola bizi duzu euskara ikastea?**

AEKn oso gustura nabil. Nire hirugarren ikasturtea da eta lagun onak egin ditut bertan. Orain arte egunero izaten nuen klasea, baina gaur egun astean bitan joaten naiz eta horrek lanarekin uztartzeko aukera ematen dit.

Nik uste dut hemen euskara beharrezkoa dela, bestela euskara hil egingo da. Atzerritar asko etortzen dira Euskal Herrira eta gaztelaniaz ikasten dute. Gaztelaniaz hitz egitea ondo dago, baina nik uste dut Euskal Herrian euskaraz hitz egin behar luketela. Hizkuntza hiltzen bada herria eta kultura ere galdu egingo dira. Gainera logikoa da. Kroaziarra joaten denak kroazieraz ikasi behar du, Madrilera joaten denak gaztelaniaz... Beraz, hona etortzen denak euskara ikasi eta erabili beharko luke.

Jendeak pentsatzen du euskara oso zaila dela, eta egia da zaila dela, baina poliki-poliki ikas daiteke.

Gainera, euskaraz hitz egiteak gerturatu egin nau zestoarregana. Jen-



**LANTOKIAN EUSKARAZ.** Erdian Marija Louvrice Zestoako Uzkudun harategian. Ezker-eskuin ditu harategiko nagusiak. Haiekin eta bezeroekin euskara praktikatzeko ari da.

“Euskaraz hitz egiteak gerturatu egin nau zestoarregana. Jendeak baloratzen du euskaraz ikatea, are gehiago gaztelaniaz jakin gabe”

deak baloratzen du euskaraz ikatea, are gehiago gaztelaniaz jakin gabe.

#### **Mintzalagun programan ere hartzen duzu parte.**

2017ko urrian hasi nintzen AEKn eta aurreko urteko urrian proposatu zidan irakasleak Mintzalagun programan parte hartzea. Hasieran pentsatu nuen: “Zergatik esan dit irakasleak Mintzalaguna behar dudala?”. Nik pentsatzen nuen: “Nire euskara ez delako ona? Ona delako?”. Ez nekien. Baina hasi nintzen nire bidelagun Sorkunderekin eta oso ondo dago. Euskara gehiago ikasten dut eta errazagoa da. Mintzalagun programak badu bat-batekotasunak ematen duen abantaila eta lagungarria da.

#### **Uda honetan lanean aritu zara Zumaian, euskaraz. Orain, berriz, herriko harategi batean ari zara. Zer moduz?**

Kosta egin zitzaidan hasieran euskaraz lan egitea, baina poliki-poliki moldatzen joan naiz. Orain herriko Uzkudun harategian ari naiz lanean, sukaldean. Euskarak lagundu dit lan horiek topatzen; denborarekin gaztelania ere beharko dut, baina oraingoz euskaraz moldatzen naiz. Oso gustura nago. Lanean, gainera, beti Euskadi Irratia entzuten dugu eta zerbait ulertzen ez dudanean lankideei galdetzen diet. Etxean entzutea zailagoa egiten zait, zerbait ulertzen ez badut lagunduko didan inor ez dudalako izaten ondoan. ●

BABESLETZA:



**Hondarribia  
euskaraz bizi**

